Lintzoainen, Erroibarko udaletxean, 2025eko abenduaren 29ko 16:00etan, Erroibarko Udala bildu zen lehen deialdian ohiko bilkura egiteko. Bertaratuak: Elena Jiménez Rey, Miren Nekane Nuño Iturri, Oier Zaldúa Ortiz de Guzman, Enrique Garralda Erro, Teresa Bidaurreta Azcarate eta Juan Luis Fermin Gil García zinegotziak, bilkuraburu alkatea, Leire Remiro Esnoz izan zen, eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure.

Gai zerrendari ekin baino lehen Jiménez Rey zinegotziak eta ETI Taldeko Gil Garcia zinegotziak bilkura grabatuko dutela jakinarazi dute.

### **1.- 2025eko URRIAREN 7an ETA AZAROAREN 6an eta 13an EGINDAKO BILKUREN AKTEN ONESPENA.**

Udalbatzak erabaki du aho batez 2025eko urriaren 7ko bilkuraren akta onartzea.

Udalbatzak erabaki du aho batez 2025eko azaroaren 6ko bilkuraren akta onartzea.

Udalbatzak erabaki du aho batez 2025eko azaroaren 13ko bilkuraren akta onartzea.

### **2.- 2025eko IRAILAREN 26tik ABENDUAREN 22a ARTE ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN INGURUKO INFORMAZIOA**

Alkateak, Remiro Esnoz andreak, 2025eko irailaren 26tik abenduaren 22a arte eman dituen ebazpenen inguruko informazioa eman du.

215 ebazpena, Loizuko Gizonari buruzkoa. Bidaurreta zinegotziak adierazi du bere taldeak uste duela udalbatzaren osoko bilkuran bozkatu beharko litzatekeela udal-interesekoa izan dadin, eta aztertu eta jarduera horiek guztiak nola egingo diren ikusi beharko dela. Remiro alkateak erantzun dio adostutako prozedurari jarraitu zaiola. Gaia batzordean aztertu eta baloratu zen, eta, balorazioa batzordean egin ondoren, ebazpena prestatu zen, hura betetz. Nolanahi ere, argitu beharko da ordenantzak hala eskatzen duen, eta uste du berrikusi daitekeela normalean jarraitzen den prozedura Ebazpena eman ondoren, hurrengo pausoa arloan lan egitea da, eta bertan definitzea zer lankidetzari eutsiko zaion prestatu gabe dagoen hitzarmen baten bidez. Nuño zinegotziak hartu du hitza eta adierazten du, hain zuzen, orain arte inorekin egin ez den hitzarmena falta dela, eta definitzea eta idaztea falta dela. Hitzarmen horrek ez daki arean sartzea nahikoa izango den edo bilkuran onartzea beharrezkoa izango den, baina denak inplikaturik egon behar dutela uste du. Edonola ere, bere ustez, ebazpena zuzena da, eskaerak ordenantzan eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituelako Bidaurreta zinegotziak berriz dio gai honek bilkuratik pasa beharko lukeela, eta udal intereseko gaia dela erabaki dadin, udalbatza osoak ados egon beharko luke. Batzordea gaiak aztertzeko da, baina gero erabakiak bilkuran hartzen dira. Remiro Esnoz alkateak ez du argi ikusten aldea, baina ez du arazorik gai zerrendan puntu gisa sartzeko eta gai hori azkenean urgentziatzeko puntu gisa jorratzeko.

221. eta 222. ebazpenei dagokienez, idazkariak esan du edukia berbera dela, baina bi pertsona desberdini zuzenduta daudenez, bi ebazpen gisa agertzen direla, eta ez bat gisa.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **3. 2026ko KARGA-TASAK, ZERGA-TASAK ETA TASAK ONESTEA**

Aho batez erabaki da honako karga-tasak, zerga-tasak eta tasak onartzea 2026rako:

- 1.- Hirilurreko ondasunen gaineko kontribuzioa: Balorazio Ponentziaren ondoriozko landa-eta hiri-katastroko balioaren gaineko 0,25eko karga-tasa bakarra.
- 2.-Ehuneko 3ko karga-tasa jartzea eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ) ordainarazteko . (gutxieneko tarifa: 30 euro)
- 3.-1,10 indizea jartzea jarduera ekonomikoaren gaineko zerga ordainarazteko.
- 4.-Hirilurren balio igoeraren gaineko zergari dagokionez, 2/1995 Foru Legearen 175. Artikuluan ezarritako gehieneko portzentajeak aplikatzea eta karga-tasa %8,6ko izatea..
5. Ekonomia-jardueren gaineko zerga: aurten, 1.000.000,00 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten subjektu pasiboek ez dute zerga hori ordaindu beharko. Behartutako subjektuak: 1,10 aplikatzea.

Erabaki honek 2026ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

Jende orok jakin dezan eta ondorioak izan ditzan ematen da argitara iragarki-taulan eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

#### **4.- AURREKONTUKO ALDAKETEN ONESPENA**

Remiro Esnoz alkateak Ezcurra idazkariari hitza eman dio aurrekontuko aldaketan gaineko azalpenak eman ditzan. Ezcurra idazkariak hitza hartu du eta jakinarazi du ondoko aurrekontuko aldaketak onartu behar direla:

Lehena batxilergoko eta LHko ikasleen garraiorako partidari lotuta dago; izan ere, kostua % 100ean finantzatzen bada ere, gastua ikasturtearekin doanez eta ez urtearekin, aurreikusitako partida ez da nahikoa eta kreditu-gehigarria behar da.

Aho batez erabaki da ondoren agertzen diren aldaketak onartzea:

**1ª (4º)**

#### **2025eko AURREKONTU OROKOR BAKARRARI KREDITU GEHIGARRIAK GAITZEKO ESPEDIENTEAREN HASIERAKO ONESPENA.**

##### **AURREKONTUKO ALDAKETAK**

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
1 3269 2273000	BATXILLERRA/LH IKASLEEN GARRAIOA	9.700,00

<i>ALDAKETAK OSOTARA</i>		9.700,00
--------------------------	--	----------

##### **FINANTZAZIO ITURRIAK**

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
1 480000	BATXILLERGO GARRAIOA – FAMILIEN EKARPENA	3.581,97
1 87000	GASTU OROKORREN SOBERAKINAK	6.118,03

<i>FINANTZAZIO ITURRIAK GUZTIRA</i>		9.700,00
-------------------------------------	--	----------

Bigarrena, berriz, baliogabetu egin behar da, aurreikusitako partidak ez baitu balio eta ez baitu jasotzen berdintasun-zerbitzuaren hitzarmena sinatu duten toki-erakundeek egiten dituzten Estatuko itun-funtsaren ekarpenetatik eratorritako edukia.

Aho batez erabaki da ondoren agertzen diren aldaketak onartzea:

### 2<sup>a</sup> (5<sup>a</sup>)

#### **2025eko AURREKONTU OROKOR BAKARRARI KREDITU GEHIGARRIAK GAITZEKO ESPEDIENTEAREN HASIERAKO ONESPENA.**

##### **AURREKONTUKO ALDAKETAK**

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
1 2391 4890001	ESTATU ITUNAREN FUNTSEN EKARPENA	1.665,00

<i>ALDAKETAK OSOTARA</i>		1.665,00
--------------------------	--	----------

##### **FINANTZAZIO ITURRIAK**

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA

<i>FINANTZAZIO ITURRIAK GUZTIRA</i>		0,00
-------------------------------------	--	------

--	--	--

Hirugarren aldaketak, berdintasun zerbitzuari lotuak eta bigarren aldaketaren ondoriozkoak, kreditu gehigarria eskatzen du, kontzeptu horrek sortutako gastu guztiak eta gastuari aurre egiteko behar den finantzaketa jasotzen baititu.

Aho batez erabaki da ondoren agertzen diren aldaketak onartzea:

### 3<sup>a</sup> (6<sup>a</sup>)

#### **2025eko AURREKONTU OROKOR BAKARRARI KREDITU GEHIGARRIAK GAITZEKO ESPEDIENTEAREN HASIERAKO ONESPENA.**

#### AURREKONTUKO ALDAKETAK

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
1 2391 2279900	ESKUALDEKO BERDINTASUN ZERBITZUKO JARDUERAK	21.500,00

<i>ALDAKETAK OSOTARA</i>		21.500,00
--------------------------	--	-----------

#### FINANTZAZIO ITURRIAK

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
1 4508004	GENERO INDARKERIA ESTATUKO ITUNAREN LAGUNTZA	16.971,12
1 87000	GASTU OROKORREN SOBERAKINAK	4.528,88

<i>FINANTZAZIO ITURRIAK GUZTIRA</i>		21.500,00
-------------------------------------	--	-----------

#### 4<sup>a</sup> (7<sup>a</sup>)

Laugarren aldaketa, Udalaren kultur jardueren kontu-sailari lotua, behar adinako partidarik eta hura sostengatuko duen poltsarik ez egoteagatik.

Aho batez erabaki da ondoren agertzen diren aldaketak onartzea:

#### 2025eko AURREKONTU OROKOR BAKARRARI KREDITU GEHIGARRIAK GAITZEKO ESPEDIENTEAREN HASIERAKO ONESPENA.

#### AURREKONTUKO ALDAKETAK

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
1 3340 2260900	UDALAREN KULTUR JARDUERAK	122,44

<i>ALDAKETAK OSOTARA</i>		122,44
--------------------------	--	--------

#### FINANTZAZIO ITURRIAK

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
1 87000	GASTU OROKORREN SOBERAKINAK	122,44
<i>FINANTZAZIO ITURRIAK GUZTIRA</i>		122,44

#### **5<sup>a</sup> (8<sup>a</sup>)**

Bosgarren aldaketari dagokionez, Sorogaingo aterpetxea mantentzeari lotuta, aurten aurreikusitakoa baino obra gehiago eta mantentze lan gehiago egin behar izan dira, besteak beste, aterpetxeari eragindako kalteengatik, eta kreditu nahikorik ez dagoenez, kreditu gehigarri bat behar da.

Aho batez erabaki da ondoren agertzen diren aldaketak onartzea:

#### **2025eko AURREKONTU OROKOR BAKARRARI KREDITU GEHIGARRIAK GAITZEKO ESPEDIENTEAREN HASIERAKO ONESPENA.**

#### AURREKONTUKO ALDAKETAK

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
1 4330 2120000	SOROGAINGO ETXEA MANTENTZEA	5.500,00
<i>ALDAKETAK OSOTARA</i>		5.500,00

#### FINANTZAZIO ITURRIAK

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
1 87000	GASTU OROKORREN SOBERAKINAK	5.500,00
<i>FINANTZAZIO ITURRIAK GUZTIRA</i>		5.500,00

#### **6<sup>a</sup> (9<sup>a</sup>)**

Azkenik, mediku-kontsultategiko eta Erroibarko Eguneko kontu-sailetatik, nahikoa dirurik ez dagoenez, kreditu-gehigarria ere behar da.

Aho batez erabaki da ondoren agertzen diren aldaketak onartzea:

**2025eko AURREKONTU OROKOR BAKARRARI KREDITU GEHIGARRIAK  
GAITZEKO ESPEDIENTEAREN HASIERAKO ONESPENA.**

**AURREKONTUKO ALDAKETAK**

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
1 3121 2120000	ERROKO KONTSULTATEGIA MANTENTZEA	2.900,00
1 3380 2262003	Erroibarko Eguna	1.000,00
<i>ALDAKETAK OSOTARA</i>		3.900,00

**FINANTZAZIO ITURRIAK**

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
<b>1 87000</b>	<b>GASTU OROKORREN SOBERAKINAK</b>	<b>3.900,00</b>
<i>FINANTZAZIO ITURRIAK GUZTIRA</i>		3.900,00

Hori guztia Nafarroako Toki Ogasuneko 2/1995 Foru Legearen 212. eta ondoko artikuluetan ezarritakoaren arabera egingo da.

Nafarroako Toki Administrazioaren uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 276 artikuluekin bat, txostenak jendaurrean egonen dira 15 egun balioduneko epean udaletxeko idazkaritzan, nahi duen orok aztertu eta bidezko erreklamazioak egin ditzan.

Erreklamaziorik aurkeztu ezean txostena behin betiko onetsizat emango da baita haren laburpena iragartzeko izapidea betetzat ere.

**5. LAN EGUTEGIA ETA 2026KO EGUN BALIOGABEAK**

Remiro Esnoz alkateak proposatu du 2026ko lan egutegia onartzea, tokiko festa eguna abenduaren 7an izango dela azpimarratuta.

Ondoren aho batez erabaki da honako lan egutegia onartzea:

1.- Erroibarko Udalaren langilegoarentzako 2026ko festa egunen egutegia onartzea, hona hemen:

Urtarrilaren 1a Urte Berri Eguna

-Urtarrilaren 6a: Jaunaren Agerkundearen eguna

- Martxoaren 19a: Aitaren eguna.
- Apirilaren 2a: Ostegun Santua.
- Apirilaren 3a: Ostiral Santua
- Apirilaren 6a: Pazko astelehena
- Maiatzaren 1a: Laneko eguna.
- Abuztuaren 15a: Ama Birjinaren Jasokundearen eguna.
- Urriaren 12a: Hispanitatearen Eguna
- Azaroaren 2a: Santu guztien eguna.
- Abenduaren 3a: Xabierko Frantzisko.
- Abenduaren 7a: Tokiko jaia
- Abenduaren 8a: Ama birjina sortzez garbia
- Abenduaren 25a: Eguberri Eguna

2.- 2026ko epeak kontatzeko, larunbat eta igande guztiak eta goian aipatutako egunak baliogabetzat jotzen dira.

3.- Erroibarko Udaleko urteko lanaldia, 1592 benetako lanordukoa, honela banatuko da:

Eguneroko lanaldia, astelehenetik ostiralera, 7 ordu eta 20 minutukoa izango da, 8:00etatik 15:00etara. Gainerako 20 minutuak langileak aukeratuko ditu eta malgutasunez, 7:40tik 8:00etara eta 15:00etatik 15:20ra bitartean.

Lanorduetan akordioak lortzen saiatuko da beti, bizitza pertsonala eta lanuztartzea ahalbidetu eta errazteko. Gai hori bereziki kontuan hartuko da seme-alaba adingabeak, seme-alaba ezgaituak, odolkidetasun eta ezkontza-ahaidetasuneko lehen eta bigarren mailako pertsonak, gaixoak, menpekoak eta abar daudenean. Eta justifikatuta egon beharko du.

Erregelamenduz finkatutako oporrak administrazio-organo eskudunak baimenduko ditu.

Langileek beren aferetarako 3 egun hartu ahalko dituzte eta Langileen Estatutuan ezarritakoaren arabera beste egun batzuk sartzen dira, gehienez ere 4 opor egun gehiago lan egindako urte gehien dituzten langileentzat eta 9 egun norberaren kontuetarako.

## **6.- IRATI-ORREAGA HITZARMEN TURISTIKOA BERRITZEKO ERABAKIA**

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza eta deialdiarekin batera bidalitako azken bileraren akta eta hitzarmena aipatuz, Irati-Orreaga Turismo Elkartearekin hitzarmena berritzea proposatu du, baina iraunkortasuna aldatuz, bi urtetik behin egin ordez urtean behin egitea. Gil zinegotziak hartu du hitza eta hirugarren puntuari dagokionez, hau da, emandako ekarpena jasotzeko elkarteak ekitaldian egindako jardueraren balantzea aurkeztuko duela, 2024ari eta 2025ari buruzko dokumentaziorik ba ote dagoen galdetu du Remiro Esnoz alkateak erantzun du 2025eko emaitza urtarrilean aurkeztuko dutela, eta 2024ko dokumentazioa eta balantzea – badirudi korporazioak ez duela halakorik– guztiekin partekatuko duela, horren berri izan dezaten.

Aldeko lau botoz (Remiro Esnoz, Jiménez Rey, Nuño eta Zaldua) eta hiru abstentzioz (Garralda, Bidaurreta eta Gil) honakoa erabaki da:

- 1.- Urte betez berritzea Irati-Orreaga Elkartearekin sinatutako hitzarmena.
- 2.- Irati-Orreaga Elkarteari erabaki honen berri ematea.

## **7.- ABENDUAREN 3KO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA, EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA, EUSKARA ZERBITZUAK SUSTATUA**

Remiro Esnoz alkateak hitza hartu du eta joan den abenduaren 3an ospatutako Euskararen Nazioarteko Eguna dela-eta, manifestua onartzea proposatu du. Hona hemen:

### ***EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA***

*Euskararen Nazioarteko Egunaren atarian, udal honek adierazi nahi du bat egiten duela ospakizunarekin. Izan ere, euskara da gure herriko ezaugarri nabarmen bat. Nolanahi ere, hizkuntza gutxitua den aldetik, erakundeon babesa behar du.*

*Gero eta gehiago dira euskaldunak gurean, baina jabetzen gara lan handia dugula egiteko euskararen normalizazioa egikaritu dadin. Gure eginkizuna da herritarrek euskaraz bizi ahal izateko bideak irekitzea.*

*Euskara da gure udalerrietako elkarbizitzarako giltzetako bat. Gure betebeharra da euskal hiztunek bereago sentitzea hizkuntza eta euskara urruti dutenei gerturatzea; halaber, bertako euskaldunen kopurua handitzen laguntzea, bai hezkuntza arautuaren bitartez baita euskaltegien bitartez ere.*

*Dagokigun ardurarengatik, udal honek bere prestutasuna agertu nahi du euskararen zabalkundean lan egiteko eta xede bera duten beste erakunde zein entitateekin elkarlanean aritzeko. Denon eginahala da beharrezkoa lanbide honetan.*

*Maiz esaten da euskara altxorra dela, baina ez da museo batean edukitzekoa. Altxorra da euskara ederra den aldetik, erabilgarria eta aberasgarria. Horregatik, gaurko egunean, Kirmen Uribe idazlearen pasarte bat ekarri nahi dugu gogora:*

*Emakume hark [Philis Levin] esan zidan bazuela euskararen berri aurretik ere, ezagutzen zituela euskaraz idatzitako testuak. (...) Harri eta zur geratu zen testuan agertzen ziren x guztiekin. Altxorraren mapa ematen du zuen hizkuntzak, esan zidan, gainontzeko letra guztiak ahaztu eta x letran soilik arreata jartzen baduzu altxorra non dagoen jakin dezakezula ematen du. Ezagutzen ez duzun hizkuntza bati buruz esan zitekeen gauzarik politena zela hura bururatu zitzaidan, altxor baten mapa dela.*

Udalbatzak erabaki du aho batez Euskararen Nazioarteko Egunaren adierazpenarekin bat egitea eta eskualdeko Euskara Zerbitzuari jakinaraztea.

## **8.- LANDA-ETXEBIZITZA PUBLIKOA ADIERAZPENA, LANDA-ETXEBIZITZA PUBLIKOAREN PLATAFORMAK SUSTATUA**

Nuño zinegotziak hartu du hitza eta jakinarazi du landu beharreko Adierazpena sustatzen duen Plataforma Nafarroako landa-eremu guztiak hartzen dituen plataforma dela. Azaldu duenez, Legebiltzarrak agerraldia egin zuela baina horretan asmo onak baizik ez zituzten lortu. Hori dela eta, orain informazioa biltzen ari dira Nasuvinsa dagoen landa-eremuetako udaletatik, egiten ari diren lana indartzeko, eta landa-eremuetarako diskriminazio positiboa egitea eskatzen dute.

Garralda zinegotziak hartu du hitza eta esan du bere taldea abstenitu egingo dela, uste baitute informazioa eta datuak falta direla, aurkeztu dutenarekin alderatuta.

Aldeko lau botoz (Remiro Esnoz, Jiménez Rey, Nuño eta Zaldua) eta hiru abstentzioz (Garralda, Bidaurreta eta Gil) erabaki da Landa eremuko etxebizitza publikoaren Plataforma landa eremuko etxebizitzari buruzko Adierazpenarekin bat egitea.

## **9.- ALKATETZAREN LANALDIA ALDATZEKO PROPOSAMENA**

Remiro Esnoz alkateak hitza eman dio Nuño zinegotziari eta honek azaldu du legegintzaldiaren hasieratik planteatu zela alkatetzak udalari eskaintzen zion lanaldiaren ehunekoa handitzea. Orain arte, % 33ko lanaldia zen, argi baitzirudien lanpostuak eskatzen

zuen dedikazioa gero eta handiagoa zela, eta hori aurreko legegintzaldian ere kontuan hartu zela. Legealdi honetako zentzuzko denbora igaro ondoren, egiaztatu da hala dela, eta alkateak ematen duen denbora aipatutako % 33 baino dezente handiagoa dela. Horregatik, eta gobernu taldeak proposatuta eta alkateak onartu ondoren, lanaldia %33tik %50era igotzea proposatzen da. Bozketara dakartena alkatetzako postuaren lanaldia handitzeko beharra dela ulertuta. Idazkariaren iritziz, udalbatzako kide guztiek, alkateak berak barne, hartu behar dute erabakia. Aho batez erabaki da alkatetzako lanpostuaren lanaldiaren igoera onartzea, %33tik %50era pasatuz, dagokion nominaren igoera barne.

**Gai-zerrendatik kanpo,** Elutsederrek Loizuko Gizakiari buruz aurkeztutako ekimena udal-esparruko kultura-proiektutzat hartzeari eta udal-intereseko ondasuntzat hartzeari buruzko 215 ebazpenarekin lotutako puntua urgentziaz lantzea proposatzen da. Guztiak ados daudenez gai-zerrendan puntu hori sartzearekin, aho batez erabaki da gai hori eztabaidatzea.

Jarraian, alkate andreak Remiro Esnozok aurkeztutako eskabidea eta egindako proposamena irakurri ditu. Hauxe da proposamena:

*Proiektuak bi jarduera mota ditu:*

*Alde batetik, jai eta erakusketa ekitaldi bat antolatuko da Loizuko Gizonaren gorpuzkinak aurkitu izana eta Erroibarrarekin izan zuten lotura ezagutarazteko, bertan aurkitu baitzituzten.*

*Bestalde, banakako jarduerak egingo dira, publiko mota orok ezagut dezan aurkikuntzaren testuinguru fisikoa, hura deskubritzea ahalbidetu zuen espeleologiaren mundua, eta modu praktikoan ikas dezan norbanako horren garaiari buruz.*

*Jai eta erakusketa jardunaldia*

*Aintzioan egingo da, Argain elkartearekin eta Kontzejuarekin elkarlanean, goiz osoan.*

*Hitzaldia: “Loizuko Gizonaren’ ikerketa eta bere testuingurua, bizitzari eta heriotzari leiho bat Harri Aroan” Gorpuzkinen ikerketaren emaitzak aurkeztuko dira.*

*1. Erakusketa: Loizuko Gizona. Espeleologia deskubritzen. Aurkikuntzaren, erauzketaren eta eskeletoaren irudiak dituzten panelak, eta haitzuloaren mapa bat, non haren garapenaren puntu nagusiak ageri diren.*

*2. Erakusketa: “Loizuko Gizonaren” bertako testuingurua. Errotalde I iturburuari eta bere historia hurbilari buruzko informazioa, Loizuko irin-errota zaharrari buruzko datuekin batera.*

*-Aperitiboa: Iritziak trukatzeko eta parte-hartzaileen arteko elkarriketa sustatzeko gunea.*

*Jardunaldiak izaera formala izango du, komunikabideetan izango duen eragina eta proiektzioa ziurtatzeko. Jarduera solteak (Larunbatetan, igandetan edo jai egun egokietan egingo dira):*

*. Ingurua ezagutzeko ibilaldia: Aintzioa eta Loizutik Errotalde I sarreraraino, flora, fauna, geologia (karst) eta iraganeko giza erabileren aztarnak esploratuz eta kontserbazioa sustatuz.*

. Lur azpiko ondarea bisitatzea: Hurbil dagoen kobazulo batera joatea, SAKON taldearekin. Interes geologikoa eta irisgarria du, XX. mendeko okupazioen aztarnak erakusten ditu eta espeleologian jardunbide egokiak irakasteko aukera ematen du.

. "Loizuko gizonaren" aurkikuntzari buruzko hitzaldia, espeleologiaren ikuspegitik: SAKON taldeak Errotalde I haitzuloa aurkeztuko du material grafikoarekin, eta aurkikuntzari eta Nafarroako espeleologia-jardunari buruz duen ikuspegia azalduko du. Jarduera Erron egingo da, Erroko Etxea Elkartean.

. Arkeologia praktiko eta esperimentaleko tailerra: Aritu talde batek aurkikuntza arkeologikoetan oinarritutako historiaurreko teknikak eta giza erabilerak ezagutzeko jarduera interaktiboak gidatuko ditu. Non egingo den zehaztu gabe dago.

Ekintza horiek zabaldu edo aldatu egin daitezke, UDALAREN KULTUR INTERESEKO PROIEKTUaren izendapenaren eta lankidetzaren hitzarmenaren arabera.

PUBLIKO GUZTIEI zuzenduta dago, bereziki Erroibarren bizi direnei eta asteburuetan zein oporraldietan hemen daudenei, eta, bigarren mailan, Auñamendi eskualdeko eta inguruko biztanleei (Artzibar, Esteribar, Lizoain-Arriasoiti) eta bisitariari.

Egutegia: 2026ko urtarriletik irailaren 30era.

Herriak: Aintzinoa-Loizu, batez ere, eta Orondritz, Esnotz, Erro eta Ardaitzera hedatuko litzateke gaiarekin lotuta baitaude, eta, gaia biztanleria orokorrera hurbiltzearen, Erroibarko beste edozein herritara.

#### **JARDUERAREN HELBURU ZEHATZAK**

Helburu orokorrak.

"Loizuko gizonaren" aurkikuntza Erroibarko biztanleei hurbiltzea, Nafarroako Museoa erakutsi eta gero eta ikerketa zientifikoaren emaitzak biltzen dituen monografia argitaratu eman ondoren, errazago uler dezaten

"Loizuko Gizona" haren jatorriarekin eta aurkikuntzaren lekuarekin, Aintzinoa-Loizu eta Erroibar, lotzeko bide publikoa indartzea, haren ondare-aberastasunari balioa emanez

Helburu zehatzak:

. "Loizuko Gizonaren" azterketari buruz orain arte ateratako ondorioak aurkeztea.

. Aurkikuntza eta erazketa prozesua bera eta Errotalde I inguruko testuinguru historikoa ezagutaraztea.

. Ingurune naturala, fauna, flora, habitata eta geologia aztertzea, aurkikuntzarekin duten lotura azpimarratuz eta haien kontserbazioari buruzko kontzientzia sustatuz.

. Espeleologiari buruzko ezagutzak zabaltzea eta gertuko lurpeko ondarrera bisitak egitea.

. Jarduera arkeologikoari buruzko esperientzia interaktiboa eskaintzea, ezagutzarako funtsezko tresna baita.

#### **JARDUERAREN EZAUGARRI ZEHATZAK**

1. Proiektuak emakumeen parte hartzea sustatzen du: BAI

*Aurkikuntzan eta gainerako jardueretan emakume garrantzitsuen parte-hartze aktiboa ikusaraziko da.*

*2. Proiektuak 18 eta 30 urte arteko gazteen parte hartzea sustatzen du: BAI*

*3. Proiektuak zahartze aktiboa sustatzen du: BAI*

*Ibilaldia eta lurpeko bisita adin guztietako jendearentzako dira.*

*4. Proiektuak euskarazko jarduerak eskaintzen ditu. BAI*

*5. Memorian balorazio galdetegiak sartuko dira: BAI*

*6. Memorian parte hartzearen datuak sartuko dira: BAI*

*7. Memorian parte hartzearen datuak, adinka eta sexuka banatuak, sartuko dira: BAI*

*Gastuak, guztira 4.350,00 euro*

Nuño zinegotziak hartu du hitza eta azaldu du, gaia batzordean eztabaidatu zenean, adierazi zuela oso ongi iruditzen zaiola proiektu hori elkarte batek gauzatzea, baina Udalak, edozein modutan, parte hartu behar duela, eta, nolana ere, hitzarmena idaztea falta dela, ordenantzak adierazten duen bezala, eta hitzarmenean zer landuko den eta nola lagunduko den islatu behar dela. Alkateak gaineratu du, lehenengo urrats gisa, 2. Arloa deitu behar dela, Elutseder elkartearekin batera, eta hitzarmen horretan zer jasotzen den ikusi. Gaia azalduta, aho batez erabaki da proiektua udal intereseko ondasuntzat jotzea.

## **10. BESTERIK**

### **1 Arloa (Gizarte ongizatea, osasuna eta berdintasuna) Jimenez Rey zinegotziak informazioa eman du**

#### **Desfibriladoreak**

Jimenez Rey zinegotziak jakinarazi du urtarrilean DESA erabiltzeko ikastaroak egingo direla. Udalbatza jakitun da.

#### **Amavir zahar egoitza**

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza eta jakinarazi du, zahar egoitzaren gaiarekin jarraituz eta Asistencial Ibañeta enpresak Planiger Taldearen barruan duen egoera kontuan hartuz, azaldu du dagoeneko funtsezko une batera heldu dela, behin betikoa dela esan daitekeela. Gogorarazi du egoitzak 300.000,00 euroko eraikuntza-abala duela, Nafarroako Gobernuak emana, eta horrek egoitza 30 urtez irekita izatea bermatzen duela. Abal horren zenbatekoa jaitsi egiten da urteak igaro ahala, eta 5 urte falta dira. Beraz, orain egoitza itxiko balitz, merkataritza sozietateak 300.000,00 euro horien ordainketari aurre egin beharko lioke. Saiatzen ari dira Nafarroako Gobernuak abal hori deusezta dezan. Aldi berean, sozietateak zor bat du, egoitza erosi zuenean Planigerrek bere gain hartu zuena, eta zorra Taldearen barne zor

izatera pasatu zen. Hartutako zor horren erantzukizun ekonomikoa akzioen banaketaren arabera banatuta dago: % 64 Planiger eta % 36 Tokiko Erakundeak Bestetik, maniobra funtsa dago, hau da, enpresak kutxan duen efektiboa, 2024. urtearen amaieran 300.000 eurokoa zena. 2025a ixteko dago, eta, gainerakoa bezala, akziodunena da. Halaber, jakinarazi da azken urteetako galerak (35.000,00, 45.000,00 euro urteko) Planigerrek bere gain hartu dituela. Horri guztiari gehitu behar zaio absentismo-tasa handia dagoela eta langileak kontratatzeke arazo ugari daudela, besteak beste, honako hauek: soldata motak, garraio publikorik eza, bizitokirik eza, eta, arrazoi horiengatik guztiengatik, titulazio espezifikorik gabeko langileak kontratatzeke beharra. Azken alderdi hori landa-egoitzen kasuan baino ez da onartzen. Langileen gai horrek guztiak eragina du sozietateak egoiliar bakoitzeko Nafarroako Gobernutik jasotzen duen diruan; izan ere, adibidez, hitzartutako plazen diru-sarrerak aldatu egiten dira hainbat faktoreren arabera.

Administrazio Kontseiluko toki-erakundeen ordezkariak egoitza irekita edukitzeko beharrezkotzat jotzen dituzten gutxieneko baldintzei dagokienez, honako hauek dira:

- Okupazio handia ohiko baldintzetan. Nafarroako Gobernuak lan egin behar du % 100eko okupazioa bermatzeko
- Eraikuntza abala: Nafarroako Gobernuak ezeztapena berretsi behar du
- Sozietatearen zorra: Planiger Taldeak zorraren % 100 hartu behar du bere gain.
- Maniobra-fondoa: maniobra-fondoaren % 100 Sozietatean geratzen diren akziodunengan geratu beharko litzateke.
- Akzioak: Planigerrek akzioen % 64ren jabe denez, horiek salduko dizkie gainerako akziodunei, euro bateko prezio sinbolikoan.

Galerak izan dituzten azken ekitaldiei dagokienez, amortizazioaren eta taldeko zorren kontzeptuak berrikusi beharko lirateke, eta, kudeatzeko moduaren arabera, galerak egonez gero, udalaren erantzukizun-mota zehaztu. Absentismoaren gaiari dagokionez, honetan guztian lanean ari den toki-erakundeetako ordezkarien taldeak funtsezkotzat jotzen du soldata baldintzak berrikustea eta egoitzako langileek sinatuko den hitzarmen berriari heldu ahal izatea, baita Nafarroako Gobernuarekin garraio-neurriren bat bultzatzen saiatzea ere, bai langileentzat, bai familientzat. Titulazio espezifikorik gabeko langileak kontratatzeari dagokionez, dagoeneko lan egin da Hezkuntzarekin, Nafarroako Mendekotasun Agentziaren bidez, 2026ko lehen hiruhilekoan prestakuntza-moduluak eman daitezen.

Nafarroako Gobernuak okupazioaren % 100 bermatzeari dagokionez, Nafarroako Mendekotasun Agentziaren eta haren zuzendari Ines Francesen konpromisoa badago. Eraikuntza-abalari dagokionez, aste honetan jaso dugu Ines Francesen idatzi bat non esaten

baitu abalaren oinarriak aztertuta eta Sozietatearen kapitala esku publikoetan geratzen bada, abalaren epea 12 urtekoa dela. Beraz, abala kantzelatatu egingo da, epea igaro delako, baina behin betiko baieztatuko duen kontu-hartze txosten baten zain daude. Zorrari dagokionez, Planigerrek erran du, ahoz, zorraren %100 bere gain hartuko duela. Maniobra-fondoari dagokionez, oraindik ez da guztiz argi geratu nola geratuko litzatekeen, baina marra gorria da eta fondo hori Sozietatean geratzea eskatuko da. Akzioen salmentari dagokionez, enpresak berretsi du bere parte salduko duela prezio sinboliko baten truke, eta urtarrilean ezohiko batzar orokorra deitzeko zain, eta batzar horretan zehaztuko dituzte gai horiek guztiak

Aurrerantzean egin behar denari dagokionez, alkateak honakoa azaldu du:

Jakinarazi du Beteluko zahar egoitzari aholkua ematen dion abokatu bera dela Asistencial Ibañetari emango diona, Xabier Barinaga.

Nafarroako 2026ko aurrekontu orokorretan 100.000,00 euroko kontu-sail bat onetsi da, zuzenketaren bidez, laguntzan inbertitu ahal izateko, kudeaketa modua aztertzeko, prozesu honi guztiari forma emateko laguntza juridikoa, partaidetzak, etab. Planigerren eskaintza bat dago trantsizio-prozesu horretan laguntzeko, zenbait hilabetez, modu independentean funtzionatu ahal izan arte, hilean 3.000,00 euro inguruko prezioan.

Dauden arriskuei buruz, Planigerrek planteatzen duen bezala ixteko erabakia hartzen bada, alde batetik, zonalderako oso zerbitzu garrantzitsua desagertuko litzateke, eta bestetik, kalte-ordainak, Nafarroako Gobernuaren abala eta gizartearen zorra bere gain hartu behar dira. Jarraitzea erabakitzen bada, zorrik eta abalik gabe abiatuko gara. Bai Gerokonek egin duen bideragarritasun txostena, Nafarroako Gobernuak finantzatua, bai Beteluko egoitzeko abokatuak, kontuen egoera, zorrik eta abalik gabe, jasangarria dela interpretatzen dute Barinaga abokatuak azaldu zuenez, akzioak erosteko urratsa eman eta Sozietatearekin jarraituz gero, zentzuzko denbora, bat edo bi urte igaro eta kaudimengabezia-egoera sortzen bada, berehala hartzekodunen aurre-konkurtsua egin behar da, jakiteko ea, azkenean, hartzekodunen konkurtsora iritsi behar den, hori udal-funtsak arriskuan jarri gabe egiteko. Izan ere, porrotera doana Sozietatea da, eta bere aktiboekin ahal duenari erantzungo lioke, eta ezin duenari, ez luke egingo, baina tokiko erakundeei ere ez lieke eragingo. Azaldutako guztitik ateratzen diren ondorioak: zorrik edo abalik ez izatea lortzen bada, maniobra-funtsa Sozietatean osorik geratzen bada, 100.000,00 euroko zuzenketaren bidez laguntza berretsita, eta kaudimengabezia posible horri adi egongo den sozietate baten oinarriak sortzen badira, lehenengo hilabeteetan Planigerren laguntza ordainduarekin, egoitzaren kudeaketan trantsizio egokia lortzeko, Amavir egoitza talde-asmorik gabeko merkataritza-sozietate gisa jarraitzea proposatzen da

Hori guztia azalduta, Remiro Esnoz alkateak argitu du puntu hori gai-zerrendan sartuta dagoela, informazio hori askotarikoa baita, idazkariarekin kontsultatu ondoren egokiena iritzi zaiolako, kontuan izanik oraindik ere zenbait alderdi eta xehetasun zehazteke daudela, onartzeko akordio bat osoko bilkurara ekarri aurretik.

Nuño zinegotziak hartu du hitza. Bere ustez, garrantzitsuena alkateak azaldutako puntu nagusiak lortzea da, gai honekin aurrera jarraitzeko.

Garralda zinegotziak hartu du hitza eta esan du, udalei begira, gaia kudeatzaile batekin hasiko lukeela beti. Alkateak erantzun du gai hori geroagokoa dela, baina, edonola ere, esan dio azken bileran kudeatzailearik gabeko ereduaren alde zeudela gehienak, kudeatzailearekin baino. Garralda jaunak iradoki du entitate finantzarioekin hitz egitea, adibidez Rural Kutxarekin.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

## **2. Arloa (Kultura, kirola eta euskera) Nuño zinegotziak informazioa eman du**

### **Musika Eskola.**

Nuño zinegotziak musika eskolaren batzar nagusiaren gaineko informazioa eman du eta aurrekontuak onartu zirela. Erroibarko ikasleagoa 35etik 39ra pasatu da ikasturte honetan eta kuotaren igoera onartu da, PKIren arabera.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Erroko Eskola Kontseilua**

Bidaurreta zinegotziak hartu du hitza eta Eskola Kontseiluak izandako bileraren berri eman du. Horretan ikasturteko informazio orokorra eman zen, baita egingo diren proiektuak eta jarduerak ere.

Eskolako jantokiari dagokionez, Nafarroako Gobernuak bere gain hartzen badu ere, jakinarazi du 15 euroekin zigortuko dela menua, justifikaziorik gabe jantokia erabiliko ez duela abisatzen ez duenari eta behin baino gehiagotan egiten badu. Era berean, eskolako zuzendaritzak eskatu du Udalera bidaltzen dituzten mezu elektronikoak erantzuteko.

500 biztanle baino gutxiago dituzten herrietako ikasleentzako diru-laguntzei dagokienez, Udalera iristen dira eta Udalak familien artean banatzen ditu. Zuzendaritzak galdetu du ea zuzenean jantokiko kontura eman daitekeen. Hori ezinezkoa dela jakinarazi da, eta, nolana ere, familiek egin beharko lukete.

Azkenik, Erroko Kontzejuko kide bat bertan zela, eskatu zuen, ikasleek kontzejuko frontoia erabiltzen dutenez, ikastetxea berritzeko laguntzak eskatzen direnean, frontoiaren teilatua konponketa ere sar dadila. Zinegotziak erantzun zuen eskolako zuzendaritzak ez duela gai

horietan sartu behar eta Kontzejuak horretarako laguntzak eskatu nahi baditu, Udalera jo dezala, ikastetxeko zuzendaritza inplikatu gabe.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **3 Arloa (enplegua, industria, energia eraginkortasuna, turismoa, landa garapena) Remiro Esnoz alkateak eman du informazioa**

#### **Eremua proiektua eta All Mountain proiektua**

Remiro Esnoz alkateak izandako bi bileren berri eman du: bata, Eremua proiektuarekin lotua, Turismo Elkartearen osatzen duten erakunde guztiei irekia, abenduaren 17an, Esteribarrek sustatua, eta bestea, alkatetzetarako deitua, bi elkarte turistikoek datorren urteko irailean egin nahi duten ekitaldi batekin lotua, mendian egingo den “All mountain” izeneko bizikleta proba mota batekin lotua. Bi aurkezpenak bidaltzen dituztenean korporazioari helaraziko dizkio.

Udalbatza jakitun da.

### **4 Arloa (mendiak, abeltzaintza, bazkalekuak, ingurumena, ondarea, hondakinak) Informazioa Zaldua Ortiz de Guzman zinegotziak eman du**

#### **2025eko abeltzaintza azpiegiturak eta 2025-2026 Baso jarduerak**

Jakinarazi da Mikel Torreari esleitu zaizkiola 2025eko abeltzaintzako azpiegituren lanak, eta martxan jarriko dela 2025-2026 aldiko baso-jarduketan lanak esleitzeko tramitazioa.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **5 Arloa (hirigintza, azpiegiturak, etxebizitza) Nuño zinegotziak eman du informazioa**

#### **PERTE “Uraren zikloa” - lanak**

PERTErekin zerikusia duen prozeduraren egoerari buruzko informazioa eman da eta Tabar adjudikaziodunak lanak hasi dituela.

Bidurreta zinegotziak hartu du hitza eta aipatu du Zilbetin, leku batzuetan, egun askotan ura zikina iristen dela, aguazilari esan diola baita Kontzejuari ere. Horren berri emango zaio Tabarri.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Gobernantza plana, Pirinioko proiektu pilotoa**

Nuño zinegotziak adierazi du, proiektuari dagokionez, aurrera doala, NILSAk, Eunatek eta geologoek parte hartzen dutela, eta edateko uren kontsumoa eta hornidura aztertzeko proposamen bat dela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Erroko autobus geltokiak**

Jakinarazi da Erron aurreikusita zeuden autobus geltokiak eginak daudela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Remiro Esnoz alkateak, galde-eskeen puntuari ekin aurretik, jakinarazi du prest duela

**2026ko osoko bilkuren egutegia**. Hona hemen:

OTSAILAK 18, asteazkena

APIRILAK 15, asteazkena

EKAINAK 17, asteazkena

ABUZTUKOA IRAILAREN 16an asteazkenean egingo da

URRIAK 21, asteazkena

ABENDUAK 16, asteazkena

## **11. ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Remiro Esnoz alkateak dio galderak idatziz erantzungo direla.

Bidaurreta zinegotziak hartu du hitza eta, batetik, Txangoako larreei buruz eta esleipendunarekin izandako bileraren emaitzari buruz galdetu du, nahiz eta abeltzainekin egindako bileran azaldu zen. Bestalde, Sorogaingo alokairuaren inguruan galdetu du, gaia nola dagoen jakiteko. Alkateak jakinarazi du pertsona batzuk interesatuta daudela eta baldintza-orrian eskatutako dokumentazioa aurkeztea falta dela.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez gero, bilkurari bukaera eman zaio egun bereko 18:00etan, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.